
ECUSA
FUNDACIÓN RAMÓN ARECES
EMAKUME ZIENTZIALARI ESPAINIARRAK
ECOGUARDIANS
LANEAN PLANETA KONPONTZEKO LOR DEZAKEGU!
MECUSA & QUANZHOU


INGURUMEN-ZIENTZIAK IKASI ARREN, BLANCA BERNAL MADRILDARRAREN BOKAZIO ZIENTIFIKOA PRAKTIKETAKO TUTOREARI ESKER PIZTU ZEN
Natura zaindu behar da pertsonen beharrak alde batera utzi gabe
Bere zati ere bagara!
BERE PASIOA EGIN NAHIAN, DOKTORETZA BAT ETA BI POSTDOKTORETZA EGIN ZITUEN, ETA BEKA BAT ERE LORTU ZUEN AEB-ETAN, OHIO STATE UNIVERSITY-N
Aukera guztiak baliatu behar ditut nahi dudana egiten jarraitzeko!
KLIMA-ALDAKETARI EKOSISTEMEN BIDEZ AURRE EGITEKO LAN EGITEN DU BLANCAK, ETA HEZEGUNETAN ESPEZIALIZATUTA DAGO (MANGLADIAK, PADURAK...) HEZEGUNEAK AZTERTU DITU AEB-ETAN, COSTA RICAN, BOTSWANAN, INDONESIAN, TXINAN, KOLONBIAN...ETAB
Ingurune hezeek hezeak ez diren ekosistemek baino $CO_2$ gehiago harrapatzen dute atmosferatik, eta mende luzez atxikitzen diote lur azpian
$CO_2$
Zoritxarrez, ekosistema ez oso produktibotzat hartu dira, eta horregatik alde batera utzi eta ustiatu egin dira. 2022an, %50 desagertu dira. Ondorioz, biodibertsitatea galdu eta CO2 gehiago askatu da atmosferara
GAUR EGUN, SENIOR TECHNICAL EXPERT ARITZEN DA BLANCA GREENCOLLAR-EN. GARAPEN JASANGARRIA ETA KLIMA-ALDAKETA ARINTZEA SUSTATZEN DITU
Izugarri gustatzen zait natura nola aldatzen den ulertzea eta ezagutza hori klima-aldaketaren aurka borrokatzeko erabiltzea
BLANCA
Orain gehiago dakigu hezeguneek berotegi-efektuko gasak harrapatzeko dakarten onuraz eta badakigu nola aztertu hori. Oso harro nago horretan lagundu izanaz


ALMUDENA MATEOSI (ALCALÁ DE HENARES) BETI GUSTATU ZITZAION ZIENTZIA, ETA HORREGATIK IKASI ZITUEN INGURUMEN-ZIENTZIAK
Karrera hori oso berria zen orduan, baina oso interesgarria eta etorkizun handia izan zezakeela zirudien
DOKTORETZA EGITEN ARI ZEN BITARTEAN, ARGI IKUSI ZUEN:
Ez nuen oso gustuko, eta AEBetan ikasi nahi nuen. Beraz, utzi egin nuen.
LA CAIXA-KO BEKA BAT LORTU ETA MASTER BAT IKASI ZUEN, NEW YORK-EKO COLUMBIA UNIBERTSITATEAN
Lana utzi behar duzu? Zoratuta al zaude?
AEB-ETAN, MUNDUKO BANKURAKO LANEAN HASI ZEN ALMUDENA :
URARI, ENERGIARI, OSASUNARI ETA ABARRI LOTUTAKO PROIEKTUAK FINANTZATZEKO MAILEGUAK EMATEN DIZKIE ERAKUNDE HONEK GARATZEKO BIDEAN DAUDEN HERRIALDEEI
Urte haietan, gutxi batzuk aritzen ginen energia jasangarriaren arloan
Lehen, energia berriztagarriak herrialde garatuetan baino ez zeuden, baina gaur egun, ordea, eguzki- eta haize-energiaren kostuak asko murriztu dira, eta garapen-bidean dauden herrialdeentzat ere dira eskuragarri.
EGUN, SENIOR ENERGY SPECIALIST ARITZEN DA ALMUDENA MUNDUKO BANKUAN. EKIALDEKO EUROPAN, ERDIALDEKO ASIAN, AFRIKAN ETA LATINOAMERIKAN LAN EGIN DU, ETA KOLONBIAN BIZI DA
Energiaren arloan proiektu interesgarriak identifikatzen laguntzen dut eta diseinu- eta exekuzio- prozesuan parte hartzen dut
A
$
B
Energia berriztagarrien PROIEKTUAREN IDENTIFIKAZIOA
GARAPENA ETA FINANTZIAZIOA
360 aholkuak: teknikoak, erregulatzaileak, etab.
INPLEMENTAZIOA
4-6 urte iraun dezake
ALMUDENA


RAQUEL SALVADOR ARAGOIARRARI JAKIN-MIN HANDIA PIZTEN ZION GIZA GORPUTZAK
Txertoak
Zergatia jakin behar dut!
Medikuntza, bizia...
HORREGATIK, KIMIKA ETA BIOKIMIKA IKASTEA ERABAKI ZUEN
DOKTORETZAN, MENTOREAK HAU GOMENDATU ZION...
AEBetan laborategi on batean ikerketa egonaldia egitea ikaskuntza handia da
Bada, hara joango naiz
BEKA BAT EMAN ZIOTEN COLORADON, ETA HIRIAZ ETA LABORATEGIKO LANAZ MAITEMINDU ZEN
Hemen geldituko naiz!
AEB-ETAN, RAQUELEK INGURUMENEAN ERAGINA DUEN ZERBAITETAN LAN EGIN NAHI ZUEN
Zientzia eta sukaldaritza, nire bi pasioak! Lan hau nahi dut!
IMPOSSIBLE
ETA AUKERA SORTU ZEN. GAUR EGUN, ZIENTZIALARIA DA IMPOSSIBLE FOODS-EN. ELIKADURA-SISTEMA ALDATZEKO ETA HARK KLIMA-ALDAKETAN DUEN ERAGINA MURRIZTEKO LAN EGITEN DUTE HAN
Ahalik eta gutxien kutsatzen duen landare-haragi bat, gozoa eta nutritiboa, nola sortu ikertzen dugu.
Haragiaren ekoizpena klima-aldaketaren kausetako bat da, gasak isuri, baliabideak kontsumitu eta, ondorioz, biodibertsitatea galtzen baita.
$CO_2$
RAQUELEK ANIMALIA-HARAGIARI ZAPOREA, USAINA ETA TESTURA EMATEN DIOTEN MOLEKULAK ZEIN HAIEN ANTZEKOAK IZAN DAITEZKEEN LANDARE-OSAGAIAK IKERTZEN DITU
HEME
HEME molekulak ematen diola zaporea haragiari aurkitu genuen. Sojan ere badago.
HEME ekoizten dugu, modu jasangarrian, eta, beste osagai batzuekin batera, hanburgesak sortzen ditugu.
Propietateak laborategian aztertu eta dastaketa itsuak egiten ditugu hobetzen jarraitzeko.
RAQUEL

# ETA, HORREGATIK, ERAKUNDEEN LAGUNTZA ETA KONPROMISOA BEHAR DITUGU



## BLANCA BERNAL / EKOSISTEMEN BABESA

Datuak, ikerketa eta inbertsioa falta dira. Ez dugu itxaron behar ekologiaz den-dena ezagutu arte zerbait egiteko. Dagoeneko badakigu ekosistemen kontserbazioa eta babesa onuragarriak direla klima-aldaketari aurre egiteko



## ALMUDENA MATEOS / ENERGIA EZ-FOSILAK

Zaila da epe labur samarrean erregai fosilekiko dugun mendekotasuna ezabatzea mundu mailan. Kontuan hartu behar dugu garapen-bidean dauden herrialde askok beren biztanleriari energia fidagarria emateko aparteko erronkari aurre egin behar diotela.



## RAQUEL SALVADOR / JANARI JASANGARRIA

Elikagaien industria eta kontsumitzailea sistema jasangarri baterantz eraldatzea. Hezkuntzaren bidez ulertarazi behar zaie pertsonei, eta ez leporatu edo seinalatu begano egiten ez badira.

# ERRONKA HANDIAK DITUGU AURREAN


BENETAKO ALDAKETAK GOITIK ETORRI BEHAR DUTE
Oraintxe ekin behar diogu. Ezin dugu guztia konponduko duen mirarizko teknologia baten zain egon. Motibatu egin behar da, baina herritarrak eta gobernuak blokeatu gabe
Maila globalean, jada pentsaezina da jasangarria ez den energia erabiltzea. Abiadura bizkortu behar da herrialde guztietan
Ingurumenarekiko elikadura jasangarria lortu behar dugu, lehenbailehen lortu ere. Hartara, beharrezkoa da industria eraldatzea eta biztanleak haztea
KLIMA-KRISIA EZ DA IRITZI BAT, ORAINTXE EKIN BEHAR DIOGU